



## GOBERNU BATZARRA

2023.01.17

**Alkatea:**  
**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**  
**Patxi Amantegi Zubiria**  
**Xarles Iturbe Pasaban**  
**Begoña Tolosa Mendia**  
**Jose M. Villanueva Telleria**

**Bertaratu ez den zinegotzia:**  
**Xabier Balerdi Tolosa**

**Idazkaria:**  
**Begoña Garmendia Vazquez**

**Kontuhartzaile akzidentala:**  
**Paulino Alonso Eraso**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko urtarrilaren hamazazpian, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

1. Akta hau onartzea: 2023ko urtarrilaren 3koa
2. Onartzea Tolosako udalaren eta Zumardia Elkartearen arteko hitzarmena gurpil-gunea proiektua aurrera eramateko.
3. Presakotzat jotzea eta onartzea Tolosako Udalaren aseguru-kontratu pribatua arautuko duen esleipenaren kontratazio jardunbidea eta lizitazioari hasiera ematea.
4. Dekretu hauen berri ematea:  
  
2022/3096 dekretua: 2022/54 faktura zerrenda.

### **1. AKTA HAU ONARTZEA: 2023KO URTARRILAREN 3KOA**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

### **2. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN ETA ZUMARDIA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA GURPIL-GUNEA PROIEKTUA AURRERA ERAMATEKO.**

**Aurrekariak:**

2022ko azaroaren 23an, Udaltzainburuak txostena egin du aipatutako



hitzarmena onartzeko proposamena helaraziz.

Hitzarmenaren helburua: Bizikleten erabilera eta berrerabil pena sustatzea.

### **Txosten juridikoa:**

Hitzarmenak izan behar duen edukia 40/201Sko legearen 49.artikuluari dago arautua:

Aurreko artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren hitzarmenek barnean hartu beharko dituzte gai hauek, gutxienez:

a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak, eta alderdietako bakoitzak zer gaitasun juridikorekin jarduten duen.

b) Zer eskumenetan oinarritzen den administrazio publikoaren, hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen edo unibertsitate publikoen jarduketak.

c) Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduketak, lortutako emaitzen titulartasuna azalduta, hala badagokio.

d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak, halakorik badago; haien urtekoak denbora-banaketa adierazi beharko da, bai eta dagokion aurrekontuari zehazki egotziko zaiona ere, aurrekontu-legeriak xedatu duenaren arabera.

e) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoen ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak, eta, hala badagokio, ez betetzetik ondoriozta daitezkeen kalte-ordaina zehazteko irizpideak.

f) Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta sinatzaileek beren gain hartutako konpromisoei aplikatzekoak. Mekanismo horrek ebatziko ditu hitzarmenak direla eta planteatu daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak.

g) Hitzarmena aldatzeko araubidea. Arau espresorik ez badago, sinatzaileen ahobatezko erabakia beharko da hitzarmenaren edukia aldatzeko.

Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:

1. Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.
2. Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea. Estatuaren Administrazio Orokorrak edo haren mendeko edo hari lotutako erakunde publikoetako batek eta zuzenbide publikoko entitateetako batek sinatutako hitzarmenen kasuan, luzapen horren berri eman beharko zaio Lankidetzak Organoa eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoari, zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen baita.

50. artikulua honela dio:



Hitzarmenak sinatzeko nahitaezko izapideak eta haien ondorioak.

1. Autonomia-erkidegoetako legeriak aurreikus ditzakeen berezitasunak gorabehera, hitzarmenak justifikazio-memori a bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea.

2. Gainera, Estatuaren Administrazio Orokorrak edo hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek sinatzen dituzten hitzarmenei hauek erantsi beharko zaizkie:

a) Zerbitzu juridikoaren txostena. Ez dago txosten hori zertan eskatu hitzarmena bat badator dagokion zerbitzu juridikoak aurretiaz txostena egin dion eredu normalizatuarekin.

b) Aplikatu beharreko araudiak ezartzen duen beste edozein txosten nahitaezko.

c) Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren alde aurreko baimena, hitzarmena sinatu, aldatu, luzatu eta alderdien arteko adostasunez suntsiarazteko.

d) Administrazio publikoen artean sinatutako urte anitzeko hitzarmenek barnean hartzen badute Estatuak funtsen ekarpenak egitea beste administrazio publiko batek eskusiboki egin beharreko jarduketak finantzatzeko, eta Estatuak, bere eskumenen barruan, konpromisoak hartzen baditu hirugarrenen aurrean, Estatuak etorkizunean urteko ordainketak egiteko baldintza izango da aurrekontuetan kreditua egotea.

e) Autonomia-erkidegoekin sinatutako administrazio arteko hitzarmenei dagokienez, Senatuari bidaliko dizkio Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak

**Txosten ekonomikoa: Ez dagokio kontraprestazio ekonomikorik ez baitago.**

**Onartu behar duen organoa: Tokiko Gobernu Batzarra.** *Horrela dio 1228 Dekretuak, uztailaren 16koak: "Alkatetzak eskuordetzea legeriak ematen dizkion ondorengo eskumenak Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari: 5.-Lankidetzak Hitzarmenak: Beste Administrazioekin edo pertsona fisiko etajuridikoekin lankidetzak hitzarmenak onartzea, ondoko legeen aplikazio eremutik kanpo geratzen direnak: 912017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen eta 3812003 Lege Orokorra , dirulaguntzei buruzkoa, eta horiek garatzeko arauak.*

Beraz, aurreko guztia ikusita, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea Tolosako Udalaren eta Zumardia elkartearen arteko hitzarmena, Gurpilgune Proiektua aurrera eramateko, ondoren aipatzen diren klausulen arabera:

*.- **Lehena:** Hitzarmen honen xedea, Tolosako Udala eta Zumardia elkartearen artean lankidetzaz esparru bat eraikitzea da, bizikleten erabilera eta berrerabil pena sustatzeko **GURPILGUNEA proiektua** garatu ahal izateko .*

*.- **Bigarrena:** Tolosako Udalaren konpromisoak.*

Hitzarmen honi jarraiki Tolosako Udalak honako konpromisoak hartzen ditu:

1.- Tolosako Udalak Zumardia elkartearen esku jarriko ditu eta doan utziko dizkio Udaltzaingoaren gordailuan dauden eta hirugarrenek eskubideak izateko legez ezarritako epea iraungita duten bizikletak {mota eta tamaina desberdinetakoak}.

2.- Tolosako Udalak lankidetzaz izango du Zumardia elkartearekin bizikleten erabilera eta berrerabil pena sustatzeko proiektua gauzatzeko, eta Zumardia elkarteak ekimen horren barruan eta mugikortasun iraunkorra sustatzeko asmoz antolatutako ekintza, jardunaldi edo bestelako ekimenak babestuko ditu.

3.- Tolosako Udalari ez dio suposatuko inongo konpromiso ekonomikorik.

*.- **Hirugarrena:** ZUMARDIA elkarteak hartutako konpromisoak.*

Hitzarmen honi jarraituz Zumardia elkarteak konpromiso hauek hartzen ditu:

1.- **GURPILGUNEA** Bizikleten erabilera eta berrerabil pena sustatzeko proiektua garatuko du Tolosako Udalak emandako baimenaren arabera.

2.- Proiektua garatzeko Zumardia elkarteak ekin1za hauek burutuko ditu.

- Tolosako Udaltzaingoak entregatutako bizikletak kontrolatzea, Udaltzaingoarekin adostutako formularioaren bidez.
- Entregatutako bizikletak sailkatzea, berreskuratu edo desmuntatzeko.
- Bizikleta bakoitzaren erregistro I fitxa egitea bizikletaren ezaugarriekin, berreskuraketa prozesua, bizikletaren funtzioak etab.
- Bizikletari itsaki bat jartzea erregistro zenbakiarekin, kanpainan parte hartzen duten erakundearen logoekin eta kanpainaren izenarekin.
- Bizikleten erabilera eta berrerabil pena sustatzeko kanpaina ezagutarazteko triptiko bat sortzea.



- *Pieza bat ematen denean hartzaileari triptikoa ematea.*
- *Bizikleta bati ekonomia zirkularren baitan biziberritze bat ematen zaionean triptikoaz gain erregistroaren kopia bat ematea jasotzen duenari.*
- *Proiektu honen baitan ekonomia zirkularren baitan biziberritze bat ematen zaion operazio guztiei sorturiko kontu liburuan jasotzea.*
- *Urtero Tolosako Udalari kanpaina honetan izandako gastu eta sarrerak aurkeztea, sarrerak proiektuan berrerabili direla frogatuz.*

*3.- Beharrezkoak diren udal baimenak eskatu beharko ditu.*

*4.- Frogatu beharko du egunera dagoela zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan.*

*5.- Elkartearen ordezkariak ezingo du legeak aurreikusiriko debeku klausulan batean sartuta egon.*

*6.- Jarduera eta erabilitako hedabide guztietan jasota utzi beharko da Tolosako Udalaren lankidetzatza.*

***.- Laugarrena: Hitzarmenaren iraupena.***

*Lankidetzako hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatzen den egunean. Hitzarmenaren epea baldintzatuta egongo da Gobernu Batzarrak 2022ko maiatzaren hogeita lauan emandako baimenari, eta gehieneko epea lau urtekoa izango da.*

***.- Bosgarrena: Hitzarmena ez betetzea.***

*Elkarteak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du Tolosako Udalak hitzarmena berrikustea, etetea edo alde bakarreko erabakiz indar gabe uztea.*

***.- Seigarrena: Datu pertsonalak babestea.***

*Ondorengo arautegia aplikatuko da: 2016/679 Erregelamendua eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa .*

***.- Zazpigarrena: Lan arriskuen prebentzioa.***

*Elkarteak, proiektua eta jaruderak gauzatzerakona, lan arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudia beteko du, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Azaroaren 8ko 31/1995 Legea eta erau garatzeko araudia.*

*Araudi hori betetzearen erantzukizuna elkarteari dagokio, eta Tolosako Udalari ezingo zaio inolako erantzukizunik eskatu, ez baitago inongo lan harremanik Tolosako Udalaren eta elkarteko kideen artean.*



**- Zortzigarrena: Araubide Juridikoa.**

Lankidetzaren hitzarmen honek administrazio izaera du, iberaz, beraren interpretazio eta garapena, ordenamendu juridiko administratiboak ezarritakoaren arabera arautuko dira.

**- Bederatzigarrena: Proiektuaren jarraipena.**

Proiektuaren jarraipen egokia egin ahal izateko Jarraipen Batzorde bat osatuko da, alde bakoitzeko ordezkari batez osatuta. Batzorde honetan alde bakoitzeko pertsonal teknikoak hartuko dute parte: Udaletik, Udaltzainburu ordea den Asier Moreno eta Agurtzane Uzin Zumardi aldetik. Bi aldeek konpromisoa hartzen dute hitzarmen honen jardueraren objektua, izaera edo baldintzak alda ditzakeen edozen gertaera suertatuko balitz jakinarazteko.

**- Hamargarrena: Eskumeneko jurisdikzioa.**

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute administrazioarekiko auzien Donostiako epaitegiek, eta bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde eskumena".

**BIGARRENA-** Alkate-Lehendakariari ahalmena ematea akordio hau aurrera eramateko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

**HIRUGARRENA.-** Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Gardentasun Atarian eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.

**3. PRESAKOTZAT JOTZEA ETA ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN ASEGURU-KONTRATU PRIBATUA ARAUTUKO DUEN ESLEIPENAREN KONTRATAZIO JARDUNBIDEA ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.**

**I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Kontratuaren xedea	Tolosako Udalaren aseguru-kontratu pribatua.
Unitate sustatzailea	Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisaila
Espedientea	2022SABI0007

**II.- AURREKARIAK**

**Lehena.-** Tolosako Udaleko kontratazio teknikariak 2022ko urriaren 13an egindako txostenean, aipatutako xedea duen kontratu pribatuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu



ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio baldintza partikularren plegua; preskripzio tekniko partikularren plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

Bigarrenena.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu hau pribatua denez, SPKLren Bigarren Liburuaren I. Tituluaren I. Kapituluko 1. eta 2. atalek arautuko dute, oro har, kontratu hau prestatzea eta esleitzea, berariazko araurik ez badago, bai eta hura garatzeko xedapenek ere. Osagarri gisa, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, edo, hala badagokio, zuzenbide pribatuko arauak, subjektu edo erakunde kontratatzailearen arabera. Ondorioei, aldaketei eta azkentzeari dagokienez, kontratu hau zuzenbide pribatuak arautuko du. Hala ere, kontratu hau 25. artikuluko lehenengo paragrafoko a) idatz-zatiko 1. eta 2. zenbakietan aipatutakoetako bat denez, SPKLren lehenengo liburuaz gain, lege horren bigarren liburua ere aplikatuko zaio, prestatu eta esleitzeari dagokionez. Ondorioei eta azkentzeari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko zaizkio, SPKLren artikuluetan kontratuak gauzatzeko, aldatzeko, lagatzeko, azpikontratzeko eta suntsiarazteko baldintza bereziei buruz ezarritakoa izan ezik, horiek aplikagarriak izango baitzaizkio kontratua erregulazio harmonizatuaren mende dagoenean.

Halaber, honako hauek aplikatuko dira: urriaren 8ko 50/1980 Legea, Aseguru Kontratuari buruzkoa; azaroaren 8ko 30/1995 Legea, Aseguru Pribatuak Antolatu eta Gainbegiratzeari buruzkoa; azaroaren 20ko 2486/1998 Errege Dekretua, Aseguru Pribatuak Antolatu eta Gainbegiratzeko Erregelamendua onartzen duena; eta otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretua, Espainiako ordenamendu juridikoan sektore jakin batzuetako kontratazio publikoaren, aseguru pribatuen, pentsio-planen eta -funtzen, zerga-esparruaren eta zerga-auzien arloko hainbat zuzentarau txertatzen dituen premiazko neurriei buruzkoa.

Hirugarrena.- Txosten berean, kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen, beste batzuen artean: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak.

Laugarrena.- Halaber, aipatutako txostenean, SPKLren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako legeak hau zehazten du 28. artikuluan:

*Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan. 1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publikizaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.*





### III.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espeditentea osatu behar da. Espeditentea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da, eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu behar da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espeditentea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:

- Kontratazio teknikariak egindako kontratazio-proposamena.
- Berezko baliabideak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Preskripzio tekniko partikularren plegua.
- Administrazio baldintza partikularren plegua.
- Lege-txostena.
- Fiskalizazio-txostena

Kontratu honek administrazio-izaera du, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat etorrira; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 17. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten duen:

*Zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obrak edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak. Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.*

#### **Bestalde, kontratu pribatu honetan honako hau kontuan izan behar da:**

Lehen.- Kontratu honetan aurreikusitako balio zenbatetsia **679.451,03** eurokoa da, aintzat hartuta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 101.1.a). artikuluan xedaturikoa.

	PPTO BASE LICITACIÓN			modificaciones previstas	VALOR ESTIMADO
	1 año	2 años	4 años		
Lote1: Multirriesgo	75.691,96	151.383,93	302.767,85	30.276,79	333.044,64
Lote 2: Responsabilidad civil	65.671,38	131.342,75	262.685,50	26.268,55	288.954,05
Lote 3: Autoridades y personal	3.535,15	7.070,30	14.140,60	1.414,06	15.554,66
Lote 4: accidentes colectivos	9.522,20	19.044,40	38.088,80	3.808,88	41.897,68
<b>TOTAL</b>	<b>154.420,69</b>	<b>308.841,38</b>	<b>617.682,75</b>	<b>61.768,28</b>	<b>679.451,03</b>

Bigarrena.- Kontratazio honetan **loteetan banatzea aurreikusi da**, eta hori justifikatu da





espedientean.

<b>Tolosako Udalaren aseguru-kontratu pribatua.</b>	
<b>Lote 1</b>	Ondasun higigarrien eta higiezinaren arrisku anitzeko aseguru
<b>Lote 2</b>	Erantzukizun zibil orokorreko/ondare-erantzukizuneko aseguru
<b>Lote 3</b>	Agintarien eta enplegatuen erantzukizun-aseguru
<b>Lote 4</b>	Istripu kolektiboen aseguru

Hirugarrena.- Sektore Publikoko Kontratuari buruzko 9/2017 Legearen 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu hau pribatua denez, SPKLren Bigarren Liburuaren I. Tituluaren I. Kapituluko 1. eta 2. atalek arautuko dute, oro har, kontratu hau prestatzea eta esleitzea, berriazko araurik ez badago, bai eta hura garatzeko xedapenak ere. Osagarri gisa, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, edo, hala badagokio, zuzenbide pribatuko arauak, subjektu edo erakunde kontratatzailearen arabera. Ondorioei, aldaketei eta azkentzei dagokienez, kontratu hau zuzenbide pribatuak arautuko du. Hala ere, kontratu hau 25. artikuluko lehenengo paragrafoko a) idatz-zatiko 1. eta 2. zenbakietan aipatutakoetako bat denez, SPKLren lehenengo liburuaz gain, lege horren bigarren liburu ere aplikatuko zaio, prestatu eta esleitzei dagokionez. Ondorioei eta azkentzei dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko zaizkio, SPKLren artikuluetan kontratuak gauzatzeko, aldatzeko, lagatzeko, azpikontratzeko eta suntsiarazteko baldintza berezietan buruz ezarritakoa izan ezik, horiek aplikagarriak izango baitaizkio kontratua erregulazio harmonizatuaren mende dagoenean.

Horren ondorioz, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), zerbitzu-kontratuari buruz xedatutakoa hartu behar da kontuan. 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, erregulazio harmonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan daitezke. Kasu honetan, 22.1 artikuluren b) idatz-zatian xedatzen den kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen duenez (215.000 €), araudi horretara dago lotuta; beraz, **erregulazio harmonizatupeko kontratua da hau**. Horrenbestez, lizitazioaren iragarkia, **kontratatzailearen profilean argitaratzeaz gain, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian ere argitaratu beharko da**.

Laugarrena.- SPKLren 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, kontratazioari buruzko errekurso berezia tartekatu ahal izango da, balio zenbatetsiak 100.000 euroko kopurua gainditzen badu; beraz, kasu honetan atalase hori gainditzen duenez, **kontratazioari buruzko errekurso bereziaren menpe egongo da lizitazioa**. Horrenbestez, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontratu ezingo da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitatuzailei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Bosgarrena.- Bestalde, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren I. tituluaren IV. Kapituluan eta horren I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKLk 86., 87., eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.



Seigarrena.- Halaber, eta ordainagiriaren ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa:

*4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikuluan 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketarako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra. Faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.*

#### **IV.- ESPEDIENTE MOTA**

SPKLk 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditentak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen ere, arruntak edo ohikoak, presakoak eta larrialdietakoak. Presakoak, 119. artikuluan arautzen dira honako honen arabera: “Presako izapidetzea erabili ahal izango da atzera ezineko premia daukaten kontratuen espeditentak edo interes publikoa dela-eta kontratuen adjudikazioa bizkortu beharra dutenak izapidetzeko. Horretarako, kontratazio-organoak egindako urgentzia adierazpena eduki behar du espeditentak, behar bezala arrazoitua”. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: “Edo hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako edo Estatuko defentsari eragiten dioten premiak daudelako Administrazioak berehala jardun behar badu...”.

Kasu honetan, SPKLren 119. artikuluan xedatutakoaren arabera, espeditente hau premia atzeraezin bati erantzuteko kontratua denez eta interes publikoko arrazoiengatik esleipena azkartu behar denez, **kontratazio-organoak presakotzat jo du**. Hori dela eta, espeditentak lehentasuna du izapidetzeko. Hori dela eta, eta SPKLren 156. artikuluko 3) idatz-zatiko b) letran xedatutakoarekin bat etorritik, enpresa lizitatzaileren proposamenak bitarteko elektronikoen bidez baino ez dira aurkeztuko, HOGEI (20) EGUN NATURALEKO epean, kontratuaren lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Lizitazioa **izapidetze aurreratuz** egin behar da, exekuzio materiala hurrengo ekitaldian



hasi behar duen kontratua dagokion kontratua finantzatu behar duten baliabideen kontsolidazio efektiboaren mende baitago, hau da, kontratua benetan exekutatzeko, hurrengo ekitaldietako udal-aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egon behar da.

## V.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Epea: Kontratuak bi urteko iraupena izango du, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Tolosako Udalak, gaur egun, hainbat estaldura eta eragin-data dituzten honako aseguru-poliza hauek ditu harpidetuta: Lizitazio honen helburua da gaur egun dauden poliza guztiak bateratzea eta

Edificios	vencimiento
Ayuntamiento	31/12/2023
Instalaciones deportivas	31/08/2023

Responsabilidad civil	vencimiento
	31/12/2023

autoridades y personal	vencimiento
	3/07/2023

accidentes del personal quitanieves	vencimiento
	1/10/2022

accidentes personal auxiliar protección civil	vencimiento
	14/03/2023

accidentes colectivos alarde San Juan	vencimiento
	vencido

Accidentes festejos taurinos	vencimiento
	vencido

Accidentes Carrozas carnaval	vencimiento
	vencido

aipatutako 3 lote horietan biltzea, bai eta poliza horietarako hasiera- eta amaiera-data homogenea ezartzea ere. Hori dela eta, kontratuaren aldi osoari, bi urtetan ezarri denari, eta beste bi urtez luzatzeko aukerari, kendu egin beharko zaio egungo polizek indarrean dirauten denbora, erantsitako taulan agertzen den bezala. Horrela, kontratu guztiak batera amaituko dira.

Balio zenbatetsia: Kontratuaren balio zenbatetsia **679.451,03** eurokoa da SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak.

	meses	valor estimado	cuota a pagar (IVA incluido)
2023	10	147.706,74	147.706,74
2024	12	177.248,09	177.248,09
2025	2	29.541,35	29.541,35
	10	147.706,74	147.706,74
2026	12	177.248,09	177.248,09
2027	2	29.541,35	29.541,35
<b>TOTAL</b>	<b>46</b>	<b>679.451,03</b>	<b>679.451,03</b>

*Según lo previsto, el contrato dará comienzo el 1 de marzo de 2023*

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **308.841,38 euro**, horietatik, 308.841,38 euro printzipalari dagozkio, eta BEZa salbuetsita.

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, jarraian azaltzen den koadroan adierazitako udal aurrekontu-partiden kargura finantzatuko dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.



	PPTO BASE LICITACIÓN			modificaciones previstas	VALOR ESTIMADO		partida	
	1 año	2 años	4 años					
Lote1: Multirriesgo	75.691,96	151.383,93	302.767,85	30.276,79	333.044,64	49,02 %	0300.224.01.920.30	151.383,93
Lote 2: Responsabilidad civil	65.671,38	131.342,75	262.685,50	26.268,55	288.954,05	42,53 %	0300.224.01.920.00	131.342,75
Lote 3: Autoridades y personal	3.535,15	7.070,30	14.140,60	1.414,06	15.554,66	2,29 %	0300.224.99.920.00	7.070,30
Lote 4: accidentes colectivos	9.522,20	19.044,40	38.088,80	3.808,88	41.897,68	6,17 %	0800.226.06.338.00	19.044,40
<b>TOTAL</b>	<b>154.420,69</b>	<b>308.841,38</b>	<b>617.682,75</b>	<b>61.768,28</b>	<b>679.451,03</b>	%100,00		

## VI.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipen-jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz, salbu eta...”*.

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publizitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala, proposamen tekniko eta, batik bat, ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzia delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, eta Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 20. klausulan eta haren I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura baitute. Kasu honetan, zifra edo ehunekotan baloratu daitezkeen irizpideak ehuneko 100 dira.

Azkenik, berme-epeari dagokionez, SPKLren 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, sei hilabetetan finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak 1.000.000 euroko kopurua gainditzen ez baitu.

## VII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA

Kontratazio-espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den administrazio baldintza partikularren plegua eta preskripzio tekniko partikularren plegua aztertu dira, kontuan harturik SPKLren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa, eta egiaztatu da



araututako xedapenekin bat datozela.

### **VIII.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

- 1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*
- 2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 607.209,38 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.856.976 euro) baino gutxiago da; hortaz, alkate-lehendakaria da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Horiek horrela, alkate-lehendakariak 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.3 artikuluan xedatutakoan oinarrituz, 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 alkatetzaren dekretuaren bitartez erabaki zuen 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuak Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzea. Horiek horrela, **Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



**ERABAKI DU:**

**LEHENA.** Onartzea Tolosako Udalaren aseguru-kontratu pribatuen espedientea, presakotzat jotzea eta lizitazioari hasiera ematea.

**BIGARRENA.-** Kontratu honen ezaugarriak onartzea:

Epea: Kontratuak bi urteko iraupena izango du, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Tolosako Udalak, gaur egun, hainbat estaldura eta eragin-data dituzten honako aseguru-poliza hauek ditu harpidetuta: Lizitazio honen helburua da gaur egun dauden poliza guztiak bateratzea eta

Edificios	vencimiento
Ayuntamiento	31/12/2023
Instalaciones deportivas	31/08/2023

Responsabilidad civil	vencimiento
	31/12/2023

autoridades y personal	vencimiento
	3/07/2023

accidentes del personal quitanieves	vencimiento
	1/10/2022

accidentes personal auxiliar protección civil	vencimiento
	14/03/2023

accidentes colectivos alarde San Juan	vencimiento
	vencido

Accidentes festejos taurinos	vencimiento
	vencido

Accidentes Carrozas carnaval	vencimiento
	vencido

aipatutako 3 lote horietan biltzea, bai eta poliza horietarako hasiera- eta amaiera-data homogeneoa ezartzea ere. Hori dela eta, kontratuaren aldi osoari, bi urtetan ezarri denari, eta beste bi urtez luzatzeko aukerari, kendu egin beharko zaio egungo polizek indarrean dirauten denbora, erantsitako taulan agertzen den bezala. Horrela, kontratu guztiak batera amaituko dira.

Balio zenbatetsia: Kontratuaren balio zenbatetsia **679.451,03** eurokoa da SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera

	meses	valor estimado	cuota a pagar (IVA incluido)
2023	10	147.706,74	147.706,74
2024	12	177.248,09	177.248,09
2025	2	29.541,35	29.541,35
	10	147.706,74	147.706,74
2026	12	177.248,09	177.248,09
2027	2	29.541,35	29.541,35
<b>TOTAL</b>	<b>46</b>	<b>679.451,03</b>	<b>679.451,03</b>

*Según lo previsto, el contrato dará comienzo el 1 de marzo de 2023*

zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak.

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **308.841,38 euro**, horietatik, 308.841,38 euro printzipalari dagozkio, eta BEZa salbuetsita.

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, jarraian azaltzen den koadroan adierazitako udal aurrekontu-partiden kargura finantzatuko dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoak aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.





	PPTO BASE LICITACIÓN			modificaciones previstas	VALOR ESTIMADO		partida	
	1 año	2 años	4 años					
Lote1: Multirriesgo	75.691,96	151.383,93	302.767,85	30.276,79	333.044,64	49,02 %	0300.224.01.920.30	151.383,93
Lote 2: Responsabilidad civil	65.671,38	131.342,75	262.685,50	26.268,55	288.954,05	42,53 %	0300.224.01.920.00	131.342,75
Lote 3: Autoridades y personal	3.535,15	7.070,30	14.140,60	1.414,06	15.554,66	2,29 %	0300.224.99.920.00	7.070,30
Lote 4: accidentes colectivos	9.522,20	19.044,40	38.088,80	3.808,88	41.897,68	6,17 %	0800.226.06.338.00	19.044,40
<b>TOTAL</b>	<b>154.420,69</b>	<b>308.841,38</b>	<b>617.682,75</b>	<b>61.768,28</b>	<b>679.451,03</b>	%100,00		

**HIRUGARRENA.-** Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren administrazio baldintza partikularren plegua eta preskripzio tekniko partikularren plegua.

**LAUGARRENA.-** Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, lizitatzailleek beren proposamenak 20 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

**BOSGARRENA.-** Erabaki horiek jakinaraztea Ogasun eta Finantza Administrazioako Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

#### 4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

##### 2022/3096 DEKRETUA: 2022/54 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2022/3096 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

#### **ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

**BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak,** Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:





TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0001

54. zenbaki duena, 346.775,02 eurokoa.

*Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.*

*Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau*

**EBAZTEN DU:**

**LEHENA.-** *Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

54. zenbaki duena, 346.775,02 eurokoa.

**BIGARRENA.-** *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

*Zinegotzi delegatua*

*Begoña Tolosa Mendia*

*Nire aurrean,  
idazkari akzidentala*

*Karmele Contreras Goikoetxea*

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 12:05ean.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2023IGBA0001-2023-01-17 Gobernu batzarra akta/2023-01-17 Gobernu